

HIRUGARREN WORLDCAFÉ TOPAKETAN, 2014-2016 PLAN ESTRATEGIKOA ARDATZ

Worldcafé topaketa egin dute Gurutzetako Unibertsitate Ospitalean, hirugarrenegoz. Ospitaleko 2014-2016 Plan Estrategikoa izan dute hizpide, eta hausnarketa-dinamika izan du oinarri. Erakunde barneko zein kanpoko eragileak bildu ditu: EHuko Erizaintzako Eskola; Mungiako, Portugaleteko, Barakaldoko eta Leioako udalak; San José de Calasanz Ikastetxea, Grifols, Madura Institutua, EVE, Olympus eta Feder Gaixo Elkarteak, besteak beste.



I-BOTIKA ESPAZIOA SARI-TUA IZAN DA, FARMAKOEI BURUZKO HEZKUNTZAN EGITEN DUEN LANAGATIK

Sarritua izan da herritarrei botikez, farmakodun tratamenduz eta gaixotasunez objektiboki informatzeko eta informazio fidagarria emateko ekimena, *i-botika* izenekoa. Farmazia Arloko Ekimen Onenaren saria jaso du, arreta farmazeutikoaren eta osasun hezkuntzaren atalean, zehazki. Diziplina anitzeko talde batek prestatzen ditu eduki guztiak; talde horretan daude osasun arloko profesionalak, kazetariak eta pazienteak. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren ekimena da *i-botika*, eta Osakidetzak abiarazi du.

📧 [webgunearen esteka](#)

OSAGUNE: OSAKIDETZAREN LANKIDETZA INGURUNE BERRIA

Otsailan sortua, lankidetzan aritzeko ingurune baten berri eman behar dizuegu: OSAGUNE.

OSAGUNEren xedea da Osakidetzako profesionalak elkarrekin lan egitea eta dokumentazioa eta ezagutza elkarren artean trukitzea. Horretarako, lanean aritu dira diziplina anitzeko eta zeharkako profesionalen talde bat, eta Osagune izeneko plataforma korporatibo hau eratu dute; horrela, lankidetzaren taldeak sortzeko modua izango da.

OSAGUNE plataforma lotuta dago Osakidetzako intranet korporatibo berri bat eratzeko proiektuari; hala, profesionalak beharrezkotzat eta presakotzat jo dutenez, lankidetzaren taldeak lehenetsi dituzte. Horren ondorioz, otsailaren 25ean abian jarri, eta, hilabete bat geroago, 128 talde sortu dira.



LEA-ARTIBAI, MUTRIKU ETA BUSTURIALDEKO HITZA

BERRIATUKO OSASUN ZENTROA INAUGURATU DUTE

Berriatuko osasun zentroa martxan da martxoaren 24tik. 180 metro koadro ditu, eta, besteak beste, honako gela hauek: mediku kontsulta, erizaintza kontsulta, sendaketa gela, bi itxarongela, bezeroen arretarako gunea eta komunak. Kontsultategi berriak, beraz, asko hobetuko ditu Berriatuko osasun baldintzak eta azpiegiturak; eta horixe da helburua: eskualdeko bizilagunen osasuna eta bizi kalitatea hobetzea, hain zuzen. Kontsultategi zerbitzuaren ordutegia haxe izango da: astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara.

irene gil

Donostia Unibertsitate Ospitaleko
Komunikazio Unitateko administraria

«Euskararen erabilera ospitalearen eguneroko jardunean eta arlo guztietan bultzatu behar dugu»

Donostia Ospitaleko Komunikazio Unitateak hainbat ardura hartzen ditu bere gain: ospitalean zehar ipintzen diren kartelen eta errotuluen ardura, eta piktogramak sortzearena eta ipintzearena, besteak beste. Irene Gil administrariak (Tolosa, 1965) bizpahiru urte daramatza lan horietan buru-belarri.



Zeintzuk dira Komunikazio Unitatearen egitekoak?

Ospitalearen barne eta, kanpo komunikazioaz eta irudiaz arduratzen da, baita hedabide eta erakundeekiko harremanak koordinatzeaz ere. Lantalde oso bat dago horren atzetik: editorea, harreman publikoetako arduraduna, diseinukoa, argazkilaria, euskara teknikaria, informatikaria eta administrariak. Gure arduretako bat kartelak eta errotulazioa dira, finkoak nahiz behin-behinekoak, eta neu ibiltzen naiz gehiena kontu horietan. Azkenaldian, arreta berezia eman diogu gaiari; denbora gehiago eskaini diogu, eta aintzat hartu ditugu Informazioko lankideen iradokizunak eta kritikak. Euren eskarmentua baliagarria zaigu oso.

Errotulazioa, zertarako?

Errotulazioarekin, karteekin eta eskuorriekin saiitzen gara azaltzen non dauden ospitalizazio aldeak, kontsultak, probak egiteko gelak eta bestelako eremuak eta zein diren horietara jo-

ateko biderik egokienak. Helburua da erabiltzailea tokirik erosoenetik bideratzea. Ospitaleak eskaintzen duen zerbitzuaren kalitateaz ari garenean, askotan, asistentzia kalitatea bakarrik hartzen dugu kontuan; ahaztu egiten zaigu komunikazioak eta informazioak ere badutela zeresana.

Nola lortzen da hori?

Adi egoten, ustez ondo dagoena ere hobetu daitekeela sinesten. Piktogramen ahalegina hortik doa.

Piktogramak sortzen dituzue. Zer da piktograma bat?

Piktograma bat irudi bat da, mezu sinple eta argia islatzen duen irudi sinple eta argi bat. Intuitiboa behar du, antzematen erraza eta adiera bakarrekoa. Hori lortzeko, trazu sinpleak eta forma garbiak erabiltzen dira. Normalean, ez dute izaten bizpahiru kolore baino gehiago, eta erabiltzen direnak oinarriko koloreak izaten dira: Osakidetza kasuan, urdin iluna eta zuria. Komunikazio Unitatean, piktogramen

erabilera zabaltzeko ahaleginean gabilta, horrek ere hobekuntza ekarriko duelakoan erabiltzaileentzat.

Zein da piktograma bat sortzeko prozesua?

Normalean, eskaerak unitateetan lanean dabiltzanek egiten dizkigute; gainbegiraleak izaten dira gehienetan. Lehenengo pausoa da, beti, mezua zehaztea, hau da, garbi jakitea piktogramarekin zer adierazi nahi dugun. Gero erreferenteak aukeratzen dira (ohatila, xiringa, jaioberria, igogailua...), eta horiek irudietara eramaten. Azken hori diseinatzaile grafikoaren lana da; guk ideiak azaltzen dizkiogu, eta berak koloreen kontrastea baliatzen du formak definitzeko. Behin osatuta, balizko erabiltzaile batzuekin ebaluazio moduko bat egiten dugu, eta, balekoa bada, ongi, eta ez bada, lanean jarraitzen dugu, asmatu arte. Ustez asmatu dugun arte, hobeto esanda...

Zein motatakoak erabiltzen dituzue?

Batzuk oso ohikoak dira: erretzeko debekuarena, komunarenak... Horiek oso zabalduta daude; geuk ere erabiltzen ditugu, noski. Berriak asmatzen hasi gara; zehazki, ospitalearen funtzionamenduari dagozkionak. Horrelakoetan, ez da beti erraza izaten esan nahi den guztia irudi batean islatzea. Mezua zenbat eta konplexuagoa izan, orduan eta konplexuagoa izango da irudia. Arazoa konpontzeko, piktogramari testua eransten diogu, mezua ulertzen laguntzeko batzuetan eta indartzeko beste batzuetan.

Oso esanguratsuak eta erabilgarriak dira, ezta hala?

Bai, ondo eginda badaude. Jendea denbora gutxirekin etortzen da hona, presaka eta askotan larri. Egoera ez da beti atsegina izaten... Horrela dabilenak nekez hartuko du testua irakurtzeko denbora; astuna egiten da. Irudia,

berriz, intuitiboagoa da; begiratu bakar batean jasotzen da mezua. Ahalegin txikiagoa eskatzen du.

Horregatik, orduan, gero eta piktograma gehiago?

Bai, horregatik, eta, batez ere, testu-mezuak baino erabiltzaile gehiagorengana iristen direlako, litezkeen zenbait oztopo gainditzen dituelako: adina, hizkuntza, urritasun psikikoa, ikusmen arazoa, eskolagabea izatea...

Hizkuntzari ere erreparatzen diozue zuenean. Nola funtzionatzen duzue hizkuntzari begira?

Bai, asko zaintzen dugu kontu hori. Errotulu eta kartel guztiak bi hizkuntza ofizialetan daude idatziak. Tira, bi salbuespen aipatzen ditu azken euskara planak: piktogramena, eta euskaraz eta gaztelaniaz antzeko grafia duten testuena (Traumatologia hitza, adibidez). Halakoetan, euskaraz bakarrik

idazten ditugu testuak, eta gainerakoetan, tipografiarekin edo testuaren kopapenarekin jokatzeko dugu, euskara lehenesteko.

Esango zenuke euskarari behar besteko garrantzia ematen diozuela?

Bai, garrantzi handia ematen diogu. Euskararen presentzia bermatuta dago arlo honetan, baina ezin gara horretan geratu; euskararen erabilera ospitalearen eguneroko jardunean eta arlo guztietan bultzatu behar dugu. Euskara batzordeko kide naiz, baita praktika komunitate batekoa ere; bien erronka da erabilera bultzatzen asmatzea. Poz handia hartzen dugu paziente edo senitarteko batek gauzak aldatzen ari direla esaten digunean, hori baita guretzat neurgailurik onena. Bagoaz pixkanaka-pixkanaka, baina oraindik lan handia dago egiteko.

piktogramak



IRUDIA BAKARRIK
duten
piktograma batzuk



TESTUA
EUSKARA HUTSEAN
daramaten piktograma
batzuk



TESTUA
EUSKARAZ ETA
GAZTELERAZ duten
piktograma batzuk



gramatika

Iturburu: *Euskal Gramatika Osoa (Ilari Zubiri-Entzi Zubiri)*

GERUNDIOA:

• **“-T(Z)EN” erakoak:** Zertan galderari erantzuten dio. Subjetua zer egiten ari den adierazten du, hau da, sujetua egiten ari den jarduera. Adibidea: Globulu gorriak oxigenoa organismoko zeluletara garraiatzen aritzen dira.



• **“- (E)Z” erakoak:** Ondorengo kasuetan erabili ohi da.

1) **Bidea, bitartekoa adierazteko:** “Zeren bidez” galderari erantzuteko: Tranpak eginez irabazi dute. Irakurriz asko ikasten da.

2) **Modua adierazteko:** “Nola” galderari erantzuten dio. Adibidea: Buruari hazka eginez geratu zen, zer pentsa ez zekiela.

Zenbaitetan, **moduaz gain, aurrekotasuna ere** adierazteko ere erabiltzen da. Adibidea: Eskua luzatuz, zigarro bat hartu zuen.


3) **Kausa-ondorio erlazioak adierazteko:** Adibidea: Ezin zuela ikusiz, la-gun bati deitu zion.

4) **Azalpenezko perpausak eratzeko:** Adibidea: Emazteari deitu zion berandu helduko zela esanez.

Oharra: “-TA” eta “-RIK” erako formak ez ditugu azaldu, kasu batzuetan gerundioaren funtzioa betetzen badute ere.

LEUKOZITOAK EDO GLOBULU ZURIAK

Globulu **zuriak edo leukozitoak** odola **osaten diharduten** zelulen multzoa dira, globulu gorri eta plaketekin batera. 8-20 µm-ko diametroa daukate, eta giza-kiek mm³-ko 5.000-10.000 dituzte, oro har. Izatez, mugikorak dira, eta odolean nahiz linfan daude kokatuta.



Gure gorputza babesten duten globulu zuriak borrokan aritzen dira gaixotasunak sortzen dituzten mikrobioen aurka. **Kirola eginez**, globulu zuriek babesteko duten gaitasuna hobetzen da nabarmen, immunitate-sistema **indartuz**. Erresistentziako kirolak eta tarteko intentsitatekoak dira egokienak. Neurrian egindako ariketa fisikoak gorputzaren defentsak garatzen ditu, infekzioaren aurrean duten ahalmena **areagotuz**.

Euren gabeziak leukopenia dakar, infekzioak sortzeko aukera **handiagotuz**. Gehiegizko kopuruak, aldiz, leukozitosis eragiten du.

GALDERAK

- 1) Zertan dihardute leukozitoek?
- 2) Nola hobetzen da nabarmen globulu zuriek babesteko duten gaitasuna?
- 3) Nola garatzen ditu ariketa fisikoak gorputzaren defentsak?

ERANTZUNAK:

1) Odola osatzen 2) Kirola eginez 3) Immunitate-sistema indartuz

agenda

HIPERTENTSIOA ZAINTEZKO ALDARRIA, OSASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNEAN

Apirilaren 7an Osasunaren nazioarteko eguna izango da. Egun horretan, MOEK arterietako hipertentsioa zaintzeko aldarria egingo du, eta, horren harira, ibilaldia antolatu dute ohitura osasuntsuak eduki behar direla gogorarazteko. Getxoko Zubi Eseki paretik abiatuko da ibilbidea, Barria kaleko 3.etik, 11:30ean.

Getxon apirilaren 7an, 11:30ean.

ARABAKO OSASUN IKERKETAKO UNITATEAREN 20. URTEURRENA OSPATZEKO JARDUNALDIAK

Arabako Osasun Ikerketa Unitatearen 20. urteurrena beteko da apirilaren 11n. Ospakizun modura, jardunaldi zientifikoa antolatu dute. Gasteizko Goiuri jauregian izango da, 09:15etik 14:30era bitartean.

Gasteizen apirilaren 11n, 09:15etik 14:30era.



VII. JOANES ETXEBERRI SARIA ANTOLATU DUTE

Euskarazko proiektuen eta ekimenen VII. Joanes Etxeberri saria antolatu dute. Helburua da Osakidetzako Gipuzkoako zerbitzu erakundeetan euskararen erabilera sustatzea eta zabaltzea.

Harremanetarako, deitu 943-00 73 60 telefonora (Iñaki Villoslada).

unitate didaktikoa

Hona hemen
hizkuntza
eskakizunak
prestatzeko
eredu bat

klikatu
hemen

